

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioentzat gordetako Iruraiz-Gaunako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hornitzea

Iruraiz-Gaunako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik geratuko da, 2026ko martxoaren 31tik aurrera plaza betetzen ari denak 2026ko martxoaren 26an aurkeztutako ukoaren ondorioz (sarrera-erregistroa: 2026-505).

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak hartu ditut kontuan, eta hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Prozedura abiaraztea proposatzeko izenda dadila estaturako gaikuntza duen toki administrazioiko funtzionario bat Iruraiz-Gaunako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, estaturako gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen 128/2018 Errege Dekretuak 49., 50. eta 51. artikuluetan jasotako moduetakoren batean.

Bigarrena. Bost egun balioduneko epea hastea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, hautagaiek bete beharreko lanposturako eskaerak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduan eta adierazten diren agiriak erantsita.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioiko funtzionario bat izendatuko da, eta lehen-tasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen Eusko Jaurlaritzak argitaratutako merezimen-duen azken baremo orokorraren arabera ezarriko da lehen-tasuna egoera bakoitzean.

Idazkia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da.

Hirugarrena. Hautagaien lehen-tasun ordena ezarri ondoren, eta Iruraiz Gaunako Udalak izendapena hurrenkera horren arabera egitearen aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatuko zaio aurkez dezala destino duen toki erakundearen aldeko txostena eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak, hamar egun balioduneko epean eta aipatutako artikuluen arabera.

Laugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estaturako gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52. eta 53. artikuluetan xedatutako prozedurak.

Bosgarrena. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

Seigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak:

Lanpostuaren izena: Idazkaritza-kontuhartzailletza. 3. klasea.

Lan harremana: estaturako gaikuntza duen funtzionarioa.

Eskala: estaturako gaikuntza.

Azpieskala: Idazkaritza-kontuhartzailletza.

Taldea: A1.

Destino osagarria: 26.

Berariazko osagarria: 20.337,25 euro.

Hizkuntza eskakizuna: 4.

Derrigortasun data: 2024ko urtarrilaren 19a.

Azilu, 2026ko martxoaren 27a

Alkatea

IRATXE DEL BARCO MURUA

ERANSKINA

Nik, jaunak/andreak (NANA:; jakinarazpenetarako helbidea:; telefono zenbakia:; Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa: azpieskalakoa; gaur egun lanpostuan dihardu, toki erakunde, (e) k egindako izendapenaren bidez; lanpostuaren jabetze data: / zerbitzu aktibora itzultzeko egoeran –lankidetzaren lanpostuak kentzeagatik / izendapen askeko lanpostua uzteagatik–).

Adierazten dut

Jakin dudala Iruraiz-Gaunako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela/ez duela titularrak betetzen, eta behin-behineko izendapenaren bidez, zerbitzu eginkizunen bidez edo zeregin pilaketagatik betetzeko aukera dagoela.

Betetzen ditudala lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez, hau

Eskatzen dut

Iruraiz-Gaunako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izendapen bidez, zerbitzu eginkizunetan / zeregin pilaketagatik (ezabatu soberan dagoena), betetzeko prozeduran parte hartzea.

Hauk eranstu ditut:

*NANaren fotokopia.

*Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.

*Metaketako postua eskatuz gero, zereginen pilaketengatik izendapenik ez dudala adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

....., 2026koaren(a).

Sinadura.